

Galdera, Nafarroako errepideetako zenbait tarteetan izaten den batez besteko trafiko-intentsitateari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak Nafarroako errepideetako zenbait tarteetan izaten den batez besteko trafiko-intentsitateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko urriaren 3ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko urriaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Juan José Lizarbe jaun-

nak galderak egin ditu Nafarroako errepideetako zenbait kilometro puntutako batez-besteko trafiko-intentsitateari eta istripuei buruz, 2001etik 2004ra bitartean eta 2005ean. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzun bateratua.

GALDERA

Zein izan da batez besteko trafiko-intentsitatea N-111 errepideko 60,4. km-tik 62,5. km-ra arteko "gune beltza" delakoan (Urbiola - Los Arcos) 2001. urtetik 2004. urtera eta 2005. urte honetan? Zenbat istripu izan dira aipatu urteetan? Nolakoak izan dira istripu horiek? Gutxienez urteka zehaztu.

ERANTZUNA

Ondoko taulan ematen ditugu eskatutako datu guztiak:

		ISTRIPU MOTA								Azt. 448 zk.
Urtea	Istripu kopurua	Talka abian doan ibilgailu batekin	Talka errepidean topatutako oztopo batekin	Atzetik jotzea	Errepidetik ateratzea	Errepidean iraultzea	Oinezkoa harrapatzea	Animaliak harrapatzea	Bestelakoak	Eguneko batez besteko intentsitatea
2002	4	4	0	0	0	0	0	0	0	4896
2003	8	1	0	2	3	0	2	0	0	4771
2004	3	3	0	0	0	0	0	0	0	5028
2005	0	0	0	0	0	0	0	0	0	